



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/10/04

Batzar Nagusietako osokoak batzarretako taldeen zortzi ebazpen proposamen onetsi ditu

Gaur goizean Gernikako Batzarretxean egin dan Bizkaiko Batzar Nagusietako osoko bilkurak, joan dan asteko Politika Orokorreko saioaren jarraipenak, hain zuzen be, batzarretako taldeek aurkeztu dituen zortzi ebazpen proposamen onetsi ditu. Guztira 22 proposamen ekarri dira gaur Gernikara, saioan eztabaidatzeko. Onetsi diran proposamenetako bi, Foru Gobernua eusten daben taldeek –Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak– alkarregaz aurkeztutako ekimenak dira, eta beste sei talde horreen eta oposizinoako beste talde batzuen artean landutakoak izan dira. Holan, bi Talde Mistoagaz landu dira, beste bi Bizkaiko Talde Popularragaz eta beste bi Podemos Bizkaia taldeagaz.

Batzarretako ekimenek, Unai Rementeria Bizkaiko Ahalduen Nagusiak joan dan astean Gernikan landu ebazan gaietako batzuk jasoten ditue. Politika Orokorreko bigarren osokoan, bere gobernuak epe laburrean dituan konpromisoak azaldu ebazan. Saio haretan hartu ebazan eronkei, Bizkaiko Batzarrek gaur onetsi dituen ebazpenak gehituko jakez.

ONETSI DIRAN EAJ-PNV ETA PSE-EE TALDEEN EKIMENAK

Osokoak onetsi dituan ebazpenen artean, Aldundiko gobernuak eusten daben talde biek aurkeztu dituen ekimen bi dagoz. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek aginduak atara ditue aurrera, alde batetik, Foru Aldundiak Foru Administrazioaren zerbitzu deszentralizatuak bultzatu daizan. Bere ekimenean, eskaria egiten jake Aldundiari “politikak, zerbitzuak, inbertsinoak, azpiegiturak, programak, ondarea... herritarrengana gerturatzea bultzatuko daben ekimenak martxan jarri daizan, deszentralizatuak informazio eta partaidetza zerbitzuen bitartez”.

Horrez gain, Batzarrek EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen beste ekimen bat be onetsi dabe, Aldundia Azkue Fundazioagaz alkarlanean aritu daiten Wikipedian Bizkaia osoaren inguruko “informazio, prestakuntza eta sustapen” lanak egin daizan, euskeraz idatzita, eskualde bakoitzean ezagutuarazoz, eta laguntza emonez, herriek euren “Herripedia” gauzatu daien.

AKORDIOAK BESTE TALDE BATZUEKAZ

Gainera, Aldundiko gobernuak eusten daben talde biek (EAJ-PNV eta PSE-EE) akordioak lortu ditue oposizinoako hiru taldeagaz (PP, Podemos eta Mistoa) ebazpenerako sei proposamen aurrera atarateko, oraingo honetan trantsakzionatutakoak.

EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeek akordioa lortu dabe, Bizkaiko Foru Aldundiari, “errepideen etorkizuneko L.S.P.-P.T.S.-aren inguruan egiten ari diran lanetatik sortu daitekezenetatik aparte, lehenasuna emoteko itsasadarraren alde bien arteko bide loturen hobekuntzei, eta baita metro lineen luzapenari be”.

Hiru talde horreek beste proposamen bat sinatu dabe, Aldundiak, Eusko Jaurlaritzagaz lankidetzan, “aurrera jarraitu daian 2017-2020 Industrializazio Planaren garapenagaz, industria



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

sektorea bultzatzeko helburuagaz, gure Lurraldearen hazkunderako eta garapenerako ardatz estrategikoa eta ezinbestekoa dalako”.

Horrez gain, oraingo honetan jeltzaleen, sozialisten eta Talde Mistoaren ordezkariaren aldeko botoagaz, osoko bilkurak eskaria egin dau, Foru Gobernuak “baliabide teknikoen eta ekonomikoen ikusgaitasuna, sarbideak eta erabilgarritasuna hobetzea balorau daian” Bizkaiko Itsasadar Museoan. Lurraldeko beste kultur gune bati, Arte Ederren Museoari, jagokonez, hiru taldeen eretxiz beharrezkoa da Bilboko museoa “etorkizunean handitzeko dagozan aukerak aztertzen eta baloretan jarraitzea”.

Eta, bukatzeko, Aldundia bultzatzen daben talde biek akordio bi lortu ditue Podemos Bizkaia taldeagaz, kalidadeko enplegua bultzatzeko eta Gaztelugatxeko Doniene inguruan hainbat jarduketa sustetako. Holan, hiru taldeek apustua egin dabe, Aldundiak enplegu egonkorra eta kalidadekoa berreskuratzeko beharrea jarraitu daian “langabezian dagozan pertsonen trebakuntzarako eta birgaikuntzarako ziklo osoko programen bitartez”. Bizkaiko Batzarrek eskaria egin deusie Foru Gobernuari, andrazkoei zuzendutako “trebakuntza eta birgaikuntza programak” martxan jarri daizan.

Gainera, Batzarretako hiru taldeek apustua egin dabe, Aldundiak hainbat jarduketa sustau daizan Gaztelugatxeko Doniene inguruan: “Eneperitik oinezkoentzako bidea egitea; baseleizara heltzeko tartea barriztetea; Ermutik joateko zoladura konpontzea; eta beheko plataforman dagon txabolea botatea”.

ONETSI EZ DIRAN EKIMENAK

Dana dala, osokoak ez ditu onartu oposizinoko taldeek aurkeztutako beste 14 ekimen (2 Talde Mistoarenak; 2 PP taldearenak; EH Bilduk aurkeztu dituan 5ak eta Podemos Bizkaiairen beste 5). Horreen artean azpimarragarriak dira EH Bildu, Podemos Bizkaia eta PP taldeek aurkeztu dituen hainbat ekimen, etorkizuneko erreforma fiskala negoziatuko. “Denpora gitxi barru” Batzar Nagusiak “gure sistema fiskala hobetzeko neurriek eztabaidauko ditue”, jakinarazo dau Jon Andoni Atutxa bozeroale jeltzaleak, bere taldeak fiskalidadearen inguruko eztabaidea zabaltzearen kontra erakutsi dauen jarrera azaltzeko, EH Bilduk eta Podemos Bizkaia eskatzen eban moduan, edo, PP taldeak eskatzen eban moduan, Aldundiak Soziedadeen Zergaren erreforma zuzenean aurkezteko “zergaren tasak lurralde komunean dagozan mailen parean jarteko”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
04/10/2017

El pleno de Juntas Generales aprueba ocho propuestas de resolución de los grupos junteros

El pleno de Juntas Generales de Bizkaia celebrado esta mañana en la Casa de Juntas de Gernika, continuación de la sesión de Política General de la semana pasada, ha aprobado ocho propuestas de resolución presentadas por los grupos junteros, de un total de 22 que han llegado hoy a la villa foral para su debate. Dos corresponden a iniciativas presentadas de manera conjunta por los grupos que sustentan al Gobierno foral -Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos-, y otras seis han sido transaccionadas por estos grupos con algunas formaciones de la oposición, concretamente dos con el grupo Mixto, dos con el grupo Popular Vizcaíno y otras dos con Podemos Bizkaia.

Las iniciativas parlamentarias recogen algunas cuestiones que fueron tratadas por el diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, hace una semana en Gernika en donde desgranó, en su segundo pleno de Política General, los compromisos de su gobierno a corto plazo. A los retos que asumió en aquella sesión, se le unirán ahora las resoluciones acordadas hoy por el Legislativo vizcaíno.

INICIATIVAS DE PNV Y PSE-EE

Entre las resoluciones aprobadas por el pleno se encuentran dos iniciativas presentadas por los grupos que sustentan al gobierno de la Diputación. Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han sacado adelante mandatos para el Ejecutivo territorial que contempla, por un lado, el impulso de los servicios descentralizados de la Administración foral. En su iniciativa, se insta a la Diputación a “impulsar la puesta en marcha de iniciativas que promuevan el acercamiento de las políticas, servicios, inversiones, infraestructuras, programas, patrimonio ... a la ciudadanía a través de servicios de información y participación descentralizados”.

Asimismo, el hemiciclo ha avalado otra iniciativa de PNV y PSE-EE encaminada a que la Diputación colabore con la Fundación Azkue en desarrollar, para toda Bizkaia, labores de “información, formación y promoción” de la Wikipedia en euskera, dándola a conocer en cada comarca, y colaborando para que los municipios desarrollen su propia “Herripedia”.

ACUERDOS CON OTROS GRUPOS

Además, los dos grupos que sustentan al Gobierno foral (PNV y PSE-EE) han llegado a acuerdos con tres formaciones de la oposición (PP, Podemos y Mixto) para sacar adelante otras seis propuestas de resolución en este caso transaccionadas.

PNV, PSE-EE y PP han llegado a un acuerdo para aprobar una propuesta que insta a la Diputación Foral de Bizkaia “a considerar como prioritarias –además de aquellas que puedan resultar de los trabajos que sobre el futuro P.T.S. de carreteras se vienen llevando a cabo- la



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

mejora de las conexiones viarias entre las márgenes de la ría, así como la extensión de las líneas de metro”.

Estos tres grupos firman otra propuesta para que la Diputación, en colaboración con el Gobierno Vasco, “siga desarrollando el Plan de Industrialización 2017-2020, con el objetivo de impulsar el sector industrial, como eje estratégico e imprescindible para el crecimiento y desarrollo de nuestro Territorio”.

Asimismo, bajo el impulso en este caso de jeltzales, socialistas y el representante del grupo Mixto, el pleno ha pedido que el Gobierno foral “valore la mejora de la visualización, accesos y disponibilidad de medios técnicos y económicos” en el Museo Marítimo Ría de Bilbao. Con respecto a otro centro cultural del territorio, el Museo Bellas Artes, las tres formaciones ven necesario que “se sigan analizando y valorando las opciones cara a una futura ampliación” de la pinacoteca bilbaína.

Y, por último, las dos formaciones que apoyan a la Diputación han llegado a sendos acuerdos con Podemos Bizkaia para impulsar el empleo de calidad y diferentes actuaciones en el entorno de San Juan de Gaztelugatxe. Así, las tres formaciones apuestan por que la Diputación siga impulsando la recuperación del empleo estable y de calidad “a través de programas de ciclo completo de cualificación y recualificación de personas en situación de desempleo”. La Cámara vizcaína demanda del Gobierno foral la puesta en marcha de “programas de formación y recualificación” para mujeres.

Asimismo, los tres grupos junteros han apostado por que la Diputación realice e impulse en San Juan de Gaztelugatxe diversas actuaciones: “obras de acceso peatonal desde Eneperi; rehabilitación de tramos de acceso a la ermita; reparación del pavimento de acceso por Ermu; y la demolición de la caseta ubicada en la plataforma inferior”.

PROPUESTAS RECHAZADAS

En cambio, el pleno ha desestimado 14 iniciativas presentadas por los grupos de la oposición (2 del grupo Mixto; 2 del PP; las 5 de EH Bildu y otras 5 de Podemos Bizkaia). Entre ellas destacan diferentes iniciativas de EH Bildu, Podemos Bizkaia y PP para negociar una futura reforma fiscal. “En breve”, las Juntas Generales “estarán debatiendo medidas para mejorar nuestro sistema fiscal”, ha anunciado el portavoz jeltzale Jon Andoni Atutxa, para justificar la negativa de su grupo a abrir un debate sobre la fiscalidad como defendían EH Bildu y Podemos Bizkaia, o , directamente, como pedía el PP, para que la Diputación presentase una reforma del Impuesto de Sociedades “equiparando los tipos impositivos a los niveles existentes en territorio común”.